

GURE DON KLAUDIO

Aurtengo Pazku Igandean, Jorrailaren 3'an, gomuta berezi bat: Gabon ostean, Urtarrilaren 29'an joan jakun gure Don Klaudio.

Bere eriotzak, oraindik zirrara aundiagoa egin eustan beretzat gertaurik neukan zorion-postala bertanbera geratu jatalako: gure Kurutziaga'ko Kurutzea zan. JAIO-TZA'ren ZORIONA, GURUTZE'agaz eta BERBIZKUNDEAGAZ lotu eziñik, idatzi barik eta bialdu barik gel-ditu jatan azkenean!

Ostera Don Klaudio'k, Aberri Egun baten, San Anton'go Berbizkunde Mezan, jakin euskun, bai, ERIO-TZA ta BERBIZKUNDEA, gure aberri txikia ta Aberri Aundia alkartzen!... Entzuleoi, poza ta bizitz-indarra emoten!...

Gero, gaixorik Artxanda'n egoala, berak esan eustan "Gurutzean nago" arek, barreneraiñoko dardarea egin eustan. Baiña, gure gauzak olan izanik, egin neutson ikustaldi bakarra izan zan axe: Parkatu Don Klaudio!

San Anton bere eleizan, berak merezi ebanez, Don Klaudio'ren gurutzetik jatzitea eta Berbizkunde ospatu genduzan. Gotzaiña ta eun bat abaderen alkarmeza, San Anton'go abesbatza ta erriaren kantuak; txistulari ta bertsolariak... Bai, dana berak merezi ebanez! Eukaristia aretan, fedeak iñoskun, Kristo'k gurutzetik kendu eta berbiztu ebal!

Ziurretik Don Klaudio'k, arako Kili-Kili'ko ibillaldi aretan lez, mini-morristxo aren barruan sartuta egoala egin gura ta urten ez, egin eban argazkiaren eguneko antzera, bere tranpaz beteriko ume onaren irribarre aregaz, zoriontsu ta pozik begiratuko euskun: oraingoan, betiko zorionaren pozaz. Orain, Don Klaudio, lagundu guri!

Azkenean, guraiña ereserki ederrez azken agurra egin geuntsonean, danen artean niri, biotza geien ikutu, Don Klaudio berak, asmauriko arek egin eustan:

Begoñako Andra Mari
Bizkaiko Zaindari,
zure seme maitaleak
zugana kantari!

MAITENA'K

ALDAPE

Basetxe apala; mendi azpian
geure enda zarraren abi barria;
abi jatorra, saspi mutillak
urte gitxitan, an jayo dira.

Gero neskatxa,
danen biotzak alaitzen dira.
iGeure arkondarak lisatuteko
orain arreba dogu etxian!

Urtiak jua, urtia etorri,
ezpeitk gabe,
aldatuko zan ango sendia.

Pilpil txikiak, larrosa ederrak
bigurtzen dira.

Mutil koskorak, gizonak einda
bana banaka, aldatzen dira.

Bat izan ezik, gaste-gastia
guda ankerrak eruanda, il zan.

Aldape zarra, zindo-baratza,
Jauna'rentzako bi, beresiak:
bat Karmeldarra,
misiolaria, jua zan bestia.
iAldape zarra, enda kabia,
Euzkadi atala agurgarria!

UTARSUS

